

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4583

*EBAZPENA, 2021eko uztailaren 13koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Basaurin (Bizkaia) ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa.*

## AURREKARIAK

2021eko maiatzaren 4an, Basauriko Udalak eskabidea osatu zuen ingurumen-organoaren aurrean, ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zezan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen xedatutakoaren arabera. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukia zuena.

21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2021eko maiatzaren 27an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien administrazio publiko ukituei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen zituen oharak egin ahal izateko.

Legezko erantzun-epea amaitu, eta espedientean jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak jartzeko Plan Berezia abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikuluan aipatutako kasuetan sartzen da; bertan aurreikusten da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasa behar diren plan eta programak, honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoa ezarritakoaren arabera, edo plan edo programen gaineko ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra, haiek ingurumenerako eragin nabarmenak ekar litzaketelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulutik 32. artikulura bitartean dago araututa, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Planaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena eta indarreko araudian

ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak (eskumena duen organoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera). Txosten horretan, Planak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen ala ez, edota, bestela, zer baldintza ezarri behar diren Plana garatzeko eta ingurumena behar bezala babesteko.

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-txosten estrategikoa formulatzea. Txosten horrek honako eduki hau du:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Plan Bereziaren xedea da Basauriko udal-mugaratean ibilgailu motordunentzako erregai- edo energia-hornidurako instalazioak jartzeko hirigintza-baldintzak arautzea.

Planak helburu estrategiko hauek ditu:

– Ezarpena planifikatzea, mugikortasun-planak ezarritako helburuekin eta mugikortasun-estrategiekin bat etorritik. Jarduera instalatzeko orduan, funtzionalitate eta errepide-hierarkiako irizpideei, eta sarbide nagusiekiko hurbiltasunari emango zaie lehentasuna.

– Instalazio horien ezarpena arautzea, hiri-ehunen aniztasun morfologikoari arreta eskainiz. Hala, oso finkatuta dauden inguruneetan inpaktu negatibo gutxiago sortuko dira.

– Ezarpena arautzea eskola- eta osasun-ekipamenduak eta adinekoentzako eta beste kolektibo zaurgarri batzuentzako ekipamenduak dauden inguruneetan, ingurune horien ingurumen-kalitatea hobetzeko eta bermatzeko.

– Bide publikoan ezartzea debekatzea, eremu publikoko erabileren kalitatea eta bizikidetzak hobetzeko eta mugikortasun segurua ahalbidetzeko.

– Eraikuntza-baldintzak eta jarduera horrek baimendutako jarduera osagarriak arautzea.

– Instalazioaren arkitektura- eta paisaia-integrazioa hobetzea, eraiki gabeko eremuen publikitate-, seinaleztapen- eta tratamendu-elementuak arautuz.

Instalazio berriak Eremu Espezifikoko (EE) gisa zehaztutakoetara mugatuko dira: 0. industrialdea, 01. Sidenor-Lapatza industrialdea, 01. Zabalandi merkataritza-eremua, 02. Zabalandi Iparraldea merkataritza-eremua eta 03. Ibarreta merkataritza-eremua.

Era berean, Eremu Sentikor (ES) batzuk zehaztu dira, ingurumen- eta ondare-balio garrantzitsuak dituztenak: 0. San Miguel bizitegi-eremua, 03. San Miguel Mendebaldeko bizitegi-eremua, 05. Basconia bizitegi-eremua eta 01. Basconia eremu mistoa.

Bestalde, babestutako erabilera batzuk zehaztu dira, honako hauek barne hartzen dituztenak: ikastetxeak, osasun- eta laguntza-zentroak, kolektibo zaurgarrientzako bizilekuak, espetxeak eta kuartelak, eta aurreko kategorietan aurreikusitako erabilera duten plangintzako ekipamenduen lurzorua. Eredu sentikorretarako eta erabilera babestuetarako, 100 metroko babes-zerrenda bat zehaztu da, non ez baita instalazio berririk baimenduko.

Instalazio berriak bide-ardatz nagusiei atxikitako eremu espezifikoetan egongo dira beti (gehieenez ere bidearen ardatzetik 250 metroko distantziara), eta Plan Bereziaren Araudiko III. kapitulu jasotako baldintzak bete beharko dituzte. Kapitulu horrek kokalekuaren baldintzak jasotzen ditu, besteak beste, bide-sarearen, irisgarritasun eta mugikortasunaren eta babestutako erabilerekiko hurbiltasunaren ezaugarrien arabera.

Araudiari jarraikiz, instalazio berriek behar bezala bermatu beharko dituzte gutxieneko segurtasun-tarteak tangen eta eraikinen artean, baita uztailaren 7ko 706/2017 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak ere, MI-IP 04 jarraibide tekniko osagarria –«Ibilgailuak hornitzeko instalazioak»– onartzen duena.

Laburbilduz, azpimarratu behar da hornidura-instalazio berrien ezarpena bide-ardatz nagusietatik hurbil dauden industria- eta merkataritza-eremuetara mugatuko dela. Araututako jarduerak ezartzeko aukera dagoen eremuetan, antolamendu egokia ezarri da. Horretarako, jarduerak kokatzeko hainbat baldintza proposatu dira, honako alderdi hauekin lotuta: bide-sarearen irisgarritasuna eta ezaugarriak, eremu publikoaren funtzionalitatea, bizitegi-eremuen ezaugarriak eta babestutako ekipamendu jakin batzuekiko hurbiltasuna.

Bestalde, gaur egun dauden erregaiak hornitzeko jarduerak errespetatzen dira eta, aldizka, instalazioek ez badituzte betetzen ezarritako baldintza berriak, desadostasun-egoeran egon beharko dute.

B) Planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikularekin bat etorriz, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen zehazteko.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

a) Planak zenbateraino ezartzen duen proiektuetarako esparrua: aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Planak ez dauka baldintzatailerik, besteak beste, kokapen, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari dagokionez, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legeetan zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektuak etorkizunean baimentzeko.

b) Planak zer neurritan eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, hierarkizatuta daudenean barne: planak ibilgailuentzako hornidura-instalazioen kokapena planifikatzen eta arautzen du, faktore jakin batzuk kontuan hartuta. Planaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu plangintza nagusiarekiko bateraezintasunik.

c) Plana ingurumen-arloko gaiak txertatzeko egokia den, batik bat garapen jasangarria sustatzeko: plana egokitzen jotzen da garapen jasangarria sustatzen duten ingurumen-arloko gaiak txertatzeko, instalazioen balizko kokalekuetarako funtzionalitate-irizpideak eta bide nagusiekiko hurbiltasuna izan baitira kontuan, baita eskola- eta eremu sanitarioak eta adinekoentzako nahiz beste kolektibo zaurgarri batzuentzako ekipamenduak dauden ere, besteak beste. Gainera, Planak eraikuntza-baldintzak arautzen dituenez, garapen-proiektuek energia-aurrezpena eta -efizientzia sustatzeko neurriak har ditzakete.

d) Planarekin loturiko ingurumen-arazo esanguratsuak: ingurumenean nolabaiteko inpaktua izan dezaketen Planetik eratorritako jarduketek obra-faseekin dute zerikusia funtsean: gerta daitezkeen lur-mugimenduak, makineria-zirkulazioa, lurzoru-okupazioa, istripuzko isurpenak, uraren kalitatearen gaineko eragina, hondakinak sortzea, soinu-mailen igoera, partikulek eragindako airearen kutsadura eta abar. Gasolina-zerbitzuguneak ezartzeko proposatu diren kokaleku batzuk uholde-arriskuko eremuak dira, eta lurzoruak kutsa ditzaketen jarduerak izan dituzte.

e) Era berean, Plana egokitzat jotzen da Europar Batasuneko nahiz Espainiako ingurumen-arloko legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta eragina pairatu lezakeen eremuaren ezaugarriak:

Plan Bereziak Basauriko udalerrri osoari eragin arren, haren zehaztapenak Planean identifikatutako Eremu Espezifikoetan (EE) eta Eremu Sentikorretan (ES) gauzatuko dira. Eremu Espezifikoak ardatz nagusiei erantsitako zirkulazio erdi eta handiko guneetan daude, industrialdeetan edo jarduera ekonomikoetarako eremuetan, eta hiri-lurzoru finkatuak dira guztiak. Eremu Sentikorrek, berriz, babes berezia behar dute haien izaeragatik, eta eremu horietan ezin da hornidura-instalazioirik jarri.

Basauriko udal-mugartean, Etxerreko Putzua dago, EAEko hezeguneen LPSko II. taldean jasota dagoen gunea. Ur-geruzaren ingurua ingurumena hobetzeko gune gisa dago kategorizatuta, berreskuratu beharreko eremu degradatuetan (MA2), hain zuzen ere. LPS horren erabilera-matrizearekin bat etorritz, gasolina-zerbitzuguneak onargarriak dira horrelako eremuetan. Dena den, udal-plangintzaren arabera garatu behar dira, eta hori hala da aztertzen ari garen Plan Bereziaren kasuan. Era berean, adierazi behar da Basauriko udalerriko ibai-ibilguak bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) hobetu beharreko zatiak direla; hark Bizkaiko Lurralde Historikorako onartutako Kudeaketa Plan bat du (118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa).

Udalerrriak uholde-arazoak ditu (10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboretako uholde-arriskua, eta ARPSI ES017-BIZ-12-1). Zehazki, Planak barne hartzen dituen zenbait eremu espezifiko uholde-arriskua duten eremuak dira:

- 0. industrialdeak 100 eta 500 urte arteko errepikatze-denborako uholde-arriskua du.
- 01. Sidenor-Lapatza industrialdeak 100 eta 500 urte arteko errepikatze-denborako uholde-arriskua du.
- 03. Ibarreta merkataritza-eremuak, hegoaldean, 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua du.

Bestalde, udalerrian potentzialki kutsatuta dauden hainbat lurzoru daude (152), gehienak industrialdeetan. Planteatutako eremu espezifikoak lurzoruak kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzatiak dira.

Planaren eremua eta, zehazki, eremu espezifiko gehienak interes hidrogeologikoko eremuetan daude; dena den, akuiferoak kutsatzeko arriskua txikia edo oso txikia da udalerrriaren zatirik handienean, eta ertaina ipar-mendebaldeko mugan eta Etxerre auzoan.

Ez da detektatu ingurumen-arloko beste baldintzatzaile esanguratsurik: ez du loturarik inongo naturagune babesturekin, natura-intereseko gainerako eremuekin edo EAEko korridore ekologikoen sareko elementuekin. Ez dago interes geologikoko tokirik.

Planaren eremuak ez du ingurumen-arrisku esanguratsurik dagoeneko aipatu den uholde-arriskuz gain.

Planetik eratorritako ingurumen-ondorio esanguratsuenak izango dira udalerriko uholde-arazoekin lotutakoak, izan ere, zerbitzu-instalazio berrien kokapena baldintzatuko dute, eta lurzoru kutsatuen existentzia.

Bestalde, beste ingurumen-ondorio garrantzitsu batzuk hornidura-instalazioak eraikitzeke lanekin daude lotuta (lur-mugimenduak, horietako batzuk kutsatuta egon daitezke, zaratak eragindako eragozpenak, airearen kutsadura, hondakinen sorrera, egon daitezkeen isurpenak...).

Funtzionamendu-fasean, ibilgailuen kantitatea zertxobait igotzea aurreikusten da, eta, beraz, zaratak eta emisioak ugaritu egin litezke.

Bestalde, udalerriko eremu sentikorretan (bizitegi-, zuzkidura-, ondare- eta hezkuntza-eremuetan, besteak beste) gasolina-zerbitzuguneen ezarpena mugatu izana positiboki baloratu da.

Ondorioz, ingurumen-agiri estrategikoak planteatzen dituen zuzenketa- eta jasangarritasun-neurriak eta aurrerago zehazten diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak aplikatuta, ez da espero jarduketak ingurumenean ondorio esanguratsurik izango dutenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

3.– Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, Planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta Basaurin ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Bereziari ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik egon ez dadin, betiere, ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira.

Neurri babesle eta zuzentzaileak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen duen ebazpen honetan adierazitakoarekin bat, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta eremua antolatuko duten planetan jasotakoarekin bat etorritik.

Garapen-proiektuak gauzatzean aplikatuko diren neurriak loturik egongo dira obretako jardunbide egokien eskuliburuarekin, lurren eta soberakinen kudeaketarekin, hondakinen sorkuntza eta kudeaketarekin, induskatutako lurzoruen kontrolarekin, intereseko balio naturalen babesarekin, eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestearekin. Besteak beste, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek bete beharko dira Planetik eratorritako obrak gauzatzeko:

– Udalerriko uholde-arazoei dagokienez, eta Uraren Euskal Agentziaren 2021eko uztailaren 7ko txostenean adierazitakoarekin bat etorritik:

– Indarrean dagoen araudi-esparruaren arabera, ezin dira instalazio kutsatzaileak baimendu (gasolindegia, adibidez) lehentasunezko fluxu-eremuan.

– Lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo, uholdeak gerta daitezkeen eremuan, hizpide ditugun instalazioak 500 urteko errepikatze-denboran uholderik ez izateko kotan kokatu behar dira, betiere bideraezina dela justifikatzen ez bada, eta ezintasun material hori behar bezala justifikatu beharko da.

– Edonola ere, aipatutako justifikazioaz gain, zuzenketa-neurriak hartu beharko dira pertsonen eta ondasunen ahalik eta kalte gutxien eragiteko, hala nola eraikin, sarbide eta bideetako egiturazko hobekuntzak. Era berean, beste neurri batzuk hartu beharko dira uholdeetan ura ez kutsatzeko, eta dagozkion sistemak txertatu beharko dira uholdeko ura isuriak biltzeko sisteman eta hidrokarburatzaileen bereizgailuan sar ez dadin.

– Gaur egun uholde-arriskuko eremuan kokatuta dauden gasolina-zerbitzuguneetan jarduketak proposatuz gero, honako honek izan beharko luke haien xede nagusia: jarduketa horiek gaur egungo uholde-arriskua eta zaurgarritasuna minimiza dezatela.

– Lurzoruak eta lurpeko urak babestea: prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira dagokion obra-faserako, istripuzko isurien eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurzoruak kendu eta kudeatzea). Metatze-eremuak, instalazio osagarriak edo makinaren parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira. Makinak iragazgaitzu gabeko eremuetan ez uzteko ahalegina egin beharko da.

Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez eta, ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, eta horietako batzuk Planaren eremu espezifikoak izan daitezkeenez, lurzoruak kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitakoa izan beharko da kontuan.

– Bestalde, Basauriko Udalari eta Garapen Jasangarriaren Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaizkie lur susmagarriak detektatzearen ondoriozko kutsadura-arrasto guztiak, Lurzoruak kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betetzeko.

– Kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makinak erabiliko dira.

– Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio erabiliak.

– Obretan hondeaketa-soberakinak sortzen badira, baimendutako soberakin-biltegira eramango dira, eta indarrean dagoen legediaren arabera kudeatuko dira.

– Obrak egunez egingo dira.

– Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, jarduketak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

– Eraikuntzaren jasangarritasuna: eraikuntza eta eraikingintza jasangarriagoak egiteko behar diren ezaugarriak dagokienez, eraikuntza jasangarriko gidetan jasotako ingurumen-neurriak eta -jardunbide egokiak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpen eta -efizientzia eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:

– Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.

– Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortutako energiaren ekoizpena edo energiaren kontsumoa murriztea.

– Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.

– Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.

– Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.

– Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Basaurin ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Bereziak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Basauriko Udalari.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.– Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikulua ezarritakoaren arabera, honako ingurumen-txosten estrategiko honek indarraldia galduko du, eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, behin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko Plan Berezia onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 13a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.